

Selektibitatea, 2003ko ekaina

Jose Antonio Arana bisita egitera joan omen zitzaion behin Plazido Mujikari Loiolako santutegira. Mujikak ez zuen artean bukatua bere hiztegia. Eta lan horretan ari zen, zapata kaxetan gordeak eta bilduak zituen milaka fitxak gobernatu nahian. Baina Aranak kezkatu aurkitu omen zuen orduan Mujika. Kexu zen, beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ez ote zen gauza izango lana bukatzeko. Itsutzen ari zen.

Gelatik atera eta paseatu egin zuten luzaroan Loiolako baratzean zehar. Honetaz eta hartaz aritu ziren, haurtzaroko paisaiei buruz, egindako bidaiez eta abar. Ekuadorrera eginiko bidaiaz ere aritu zen Mujika. Chimborazo sumendia omen zen munduko garaiena, ez Everest. Everest itsas mailaren arabera omen dago neurtua. Baina munduaren erdigunetik neurtuz gero, Chimborazo izango omen litzateke garaiena. Halako batean, beturrekoak kentzeko eskatu omen zion Aranak. Lausotuak zituela konturatu zen, eta zapi batekin garbitzen zizkion bitartean, oinez jarraitu zuten beren ibilaldia. Beturrekoak bueltatu zizkionean oihu batean hasi omen zen Mujika: «Miraria, miraria!» esaten omen zuen, sinistu ezinik. Nonbait, ez zen ordura arte konturatu bere ustezko itsutze hura beturreko zikinei zor zitzaizela. Kristal zikinek zuten errua, ez zen ikusmena galtzen ari.

«Azeriak¹ gauza asko daki; trikuak², berriz, bat bakarra baina inportantea», esan zuen Arkilokok. Mujika, zalantzarik gabe, trikuaren modukoa zen. Halako jakituria zuen gizonari, halako lan eskerga³ egiten ari zen fraideari ahaztu egin zitzaion beturrekoak garbitzea bezalako ekintza soila. Maite ditut gisa horretako nahasteak. Maite ditut gisa horretako pertsonak. Bazekien gauza bat, bakarra eta inportantea, eta sinistu egiten zuen horretan. Kirikinoak bezala.

¹ **azeria:** zakurraren familiako ugaztun haragijalea, buru-zabala eta mutur-zorrotza

² **trikua:** kirikinoa, ugaztun intsektujalea, azala arantzaz betea duena

³ **eskerga:** zaila, gaitza

A. ULERMENA (2 p.)

Erantzun galdera hauei:

- Zertara joan zen Jose Antonio Arana Loiolara?
- Zein zen Plazido Mujikaren bizibidea?
- Itsutu egin al zen azkenerako?
- Zertaz hitz egin zuten Aranak eta Mujikak beren ibilaldian?
- Zein da munduko mendirik garaiena, Mujikaren ustez? Zertan oinarritzen da hori baieztatzeko?

B. GAIA ETA LABURPENA (2 p.)

Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)

C. MOLDATU ESALDIK (1 p.)

Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun

hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute.

- «Azeriak gauza asko daki; trikuak, berriz, bat bakarra», esan zuen Arkilokok. (*-ela*)
- Munduaren erdigunetik neurtuz gero, Chimborazo izango omen litzateke garaiena. (*ba-*)
- Beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ez ote zen gauza izango lana bukatzeko. (*ezin*)

D. IDAZLANA (5 p.)

Trikua eta azeria aipatzen dira testuan. Komenta ezazu, hogei lerrotan, hor ezkututzen den ideia. Ados al zaude gizakien sailkapen horrekin? Ezagutzen al dituzu mota bateko eta besteko pertsonak? Mota bateko eta besteko pertsonen alde onak eta txarrak aipa ditzakezu...

A. ULERMENA

1. Erantzun galdera hauei:

- a Zertara joan zen Jose Antonio Arana Loiolara?
Plazido Mujikari bisita egitera joan zen Jose Antonio Arana Loiolara.
- b Zein zen Plazido Mujikaren bizibidea?
Testuan oinarrituta, fraidea zela eta hiztegegintzan ziharduela esan daiteke.
- c Itsutu egin al zen azkenerako?
Ez, ez zen itsutu. Beldur zen itsutzen ari ote zen, baina lanak zuen itsututa Plazido, ez baitzen jabetu betaurrekoak zikinduta zeuzkala, eta horregatik ikusten zuela gutxiago.
- d Zertaz hitz egin zuten Aranak eta Mujikak beren ibilaldian?
Hainbat kontu izan zituzten hizketagai: haurtzaroa, bidaiak... eta, zehazki, Mujikak Ekuadorrera egindako bidaia.
- e Zein da munduko mendirik garaiena Mujikaren ustez? Zertan oinarritzen da hori baieztatzeko?
Mujikaren ustez, Ekuadorreko Chimborazo sumendia izango litzateke altuena, munduaren erdigunetik neurtuz gero, eta ez Everest, itsas mailaren arabera baitago neurtua.

B. GAIA ETA LABURPENA



2. Azal ezazu zein den testu honen gaia. Egin laburpen bat. (2 p.)

GAIA

Plazido Mujikaren izaera.

LABURPENA

Jose Antonio Aranak Plazido Mujikari behin egin zion bisitan, kezkatuta aurkitu zuen hura: itsutzen ari zela uste zuen, eta ez zekien hiztegia amaitzerik izango zuen. Jose Antonio Aranak ohartarazi zuen betaurrekoak zikinak zituela, eta horregatik ikusten zuela geroz eta gutxiago.

Pasadizo horretan oinarrituta adierazten digu idazleak zein maite zuen Plazido Mujika, zen modukoa izateagatik, hots, gauza bakarra eta inportantea jakin, eta horretan itsu-itsuan sinesteagatik.

C. MOLDATU ESALDIK (1 p.)

3. Eman itzazu beste modu batean testuan ageri diren azpimarratutako esaldi horiek. Horretarako, parentesi artean ematen zaizun hitza (forma horretantxe) erabili behar duzu, esaldia beste modu batera adierazteko. Eta ematen duzun ordainak eta testuko esaldiak funtsean adiera bera izan behar dute.

- a «Azeriak gauza asko daki; trikuak, berriz, bat bakarra», esan zuen Arkilokok. (*-ela*)
Arkilokok esan zuen azeriak gauza asko dakiela eta trikuak, berriz, bat bakarra.
- b Munduaren erdigunetik neurtuz gero, Chimborazo izango omen litzateke garaiena. (*ba-*)
Munduaren erdigunetik neurtuko balitz, Chimborazo izango omen litzateke garaiena.
- c Beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ez ote zen gauza izango lana bukatzeko. (*ezin*)
Beldur zen ez ote zen zahartzen ari, ezin izango ote zuen lana bukatu.

1. proba: eginda

D. IDAZLANA



(5 p.)

4. Trikua eta azeria aipatzen dira testuan. Komenta ezazu, hogeit hamarretan, hor ezkututzen den ideia. Ados al zaude gizakien sailkapen horrekin? Ezagutzen al dituzu mota bateko eta besteko pertsonak? Mota bateko eta besteko pertsonen alde onak eta txarrak aipa ditzakezu...

GUSTATUKO LITZAIDAKE

Asko dakien jende asko dago. Nire ustez, jakin-min handiko pertsonak dira, ideia eta informazio gose edo egarri direnak eta, gehienetan, asko irakurtzen dutenak. Horregatik, ia edozertaz hitz egiteko gai dira. Gauza bati edo besteari buruz hitz egin, ia beti edukitzen dute esateko zerbait. Gutako askok batzuetan inbidia sentitzen du, geuk ere hainbeste gauza jakin nahiko genituzkeelako.

Eta horrelako norbait ezagutzen dudan pentsatzen jarri naiz, eta nire lagun bat etorri zait burura. Egunero irakurtzen ditu egunkariak, gainera bada ere; irratia ere entzuten du, telebista ikusi ere bai eta beti jendeari galdetu eta galdetu ibiltzen da: zer gertatu da han?, nori gertatu zaio hori?, zergatik? Gauzak jakitea gustatzen zaio, baina askotan ez du gauza horietan sakontzen. Baina gauza asko daki. Lagunartean berrikerian gabiltzala, ni batzuetan isilik geratzen naiz, gauza batzuez ez dakidalako ezer. Baina berak beti dauka zer esan. Nire laguna bezalakoa izatea gustatuko litzaidake.

Joan den astean, ordea, aitonaaren heriotzaren lehen urtemuga izan zen, eta hari buruz hitz egiten aritu ginen etxean. Aitonak autoak konpontzen zituen, mekanikoa zen, eta bere lanean murgilduta bizi zen. Norbaiten autoak aberiaren bat bazuen, eta batzuk konponbiderik ez zuela uste bazuten ere, gure aitona orduak eta orduak ematen zituen lanean eta, azkenean, konpondu egiten zuen. Batzuetan ez zen afaltzera etortzen, eta goizeko laurak edo bostak arte geratzen zen gara jean. Gustura egiten zuela esaten zigun. Egundoko poza sentitzen zuten konpondutako autoa jabeari ematen zionean. Eta gero egindako guztia emozio handiarekin kontatzen zigun etxean. Berak besteei lagundu nahi zien, eta mekanikaz asko zekienez, horrelaxe laguntzen zien.

Beraz, egia da nire laguna bezalakoa izatea gustatuko litzaidakeela, baina aitonaarena gogoratutakoan, hura bezalakoa izatea ere gustatuko litzaidakeela esan nahi dut. Hau da, gustuko gauza bat eduki eta berak bizi zuten bezala bizi.

Azterketako zirriborroak

1. proba egin duen ikasleak, behin betiko erantzunak idatzi aurretik, zirriborro batzuk egin ditu: ulermen galderen erantzunak identifikatu, informazioguneak zehaztu, ideia nagusiak zerrendatu eta idazlanaren gidoia egin du. Hona hemen guztia.

A. ULERMENA

Ulermen galderei erantzun baino lehen egindakoa:

Erantzunak testuan identifikatu ditu.

- a Zertara joan zen Jose Antonio Arana Loiolara? 1. paragrafoan
- b Zein zen Plazido Mujikaren bizibidea? 1. paragrafoan (hiztegia egiten ari zen) eta 4.ean (fraidea zen).
- c Itsutu egin al zen azkenerako? 2. paragrafoan.
- d Zertaz hitz egin zuten Aranak eta Mujikak bere ibilaldian? 2. paragrafoan.
- e Zein da munduko mendirik garaiena Mujikaren ustez? Zertan oinarritzen da hori baieztatzeko? 2. paragrafoan.

Informazioguneak zehaztu ditu.

- 1. paragrafoa: pasadizoaren hasiera (Plazido Mujikaren beldurra)
- 2. paragrafoa: pasadizoaren garapena (beldurraren zergatia eta konponbidea)
- 3. paragrafoa: ondorioa eta iritzia (Plazido Mujika eta kirikinoaren konparaketa)

B. GAIA ETA LABURPENA

Laburpena egin aurretik, ideia nagusiak zerrendatu ditu.

Idea nagusiak

- J. A. Arana Plazido Mujikari bisita egitera joan.
- Mujika kezkatuta, beldur: itsutzen ari zen, eta hiztegia ezin izango zuen amaitu.
- Mujikak betaurrekoak zikinak zituela ohartu zen Arana, eta garbitu.
- Mujika konturatu ikusmena ez zela galtzen ari.
- Idazleak maite ditu gauza bakarra, inportantea, jakin, eta horretan sinesten duten pertsonak, Mujika bezalakoak.

LABURPENA

Idea nagusietatik abiatuta, erantzunetan agertzen den laburpena egin du. Baina, aukera moduan, honako laburpen hau ere eginda zeukan, orokorragoa:

Testuaren bidez, idazleak Plazido Mujika zein gogoko zuen adierazi nahi izan digu, zekien horretan hain itsuan sinesteagatik, eta horretan murgilduta bizitzeagatik, eguneroko ekintza arruntak ahazteraino. Hori adierazteko, J. A. Arana Plazido Mujikarekin bizi izandako pasadizo batean oinarritzen da.

1. proba: eginda

D. IDAZLANA

Gidoia

- Sarrera: gauza askotaz dakien jende asko.
 - Ondo informatutako jendea.
 - Ongi ikusiak.
- Lagun baten antzekoa izan nahiko nukeela pentsatu.
 - Denetaz jakin nahi du.
 - Edozeri buruz hitz egin dezake.
- Aitonaz gogoratu: heriotzaren urtemuga.
 - Lanbidea bizitzeko modua. Intentsitatez.
- Ondorioa: lagunarenari ezetz ez, baina... aitonarena nahiago.